

**AKORDIOA, 2013ko urriaren 31koa, 2013ko uztailaren 17ko (uztailaren 19ko EHAA, 138 zk.) Ebazpenaz deitutako Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako eta Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioak Brigada Mugikorrean Espezializatzeko Ikastaroetan sartzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai Kalifikatzailearena.**

Goian aipatutako Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak ondorengoa

### **ZIURTATZEN DU:**

Aipatutako Epaimahaiak 2013ko urriaren 31ko bileran ondorengo Erabakiak hartu dituela:

**LEHENA.-** Aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, Epaimahai honek oposizio faseko **gaitasun fisikoaren probari** dagozkion **behin-behineko emaitzak behin betiko** egitea. Emaitza horiek 2013ko urriaren 23ko Akordio bitartez argitaratu ziren.

**BIGARRENA.-** Gaitasun fisikoaren proba gainditu duten pertsonak **oposizioko bigarren proba egitera deitzea**. Aipatu proba derrigorrezkoa eta baztertzaileria izango da, Brigada Mugikorraren eginkizunetarako gaitasunak baloratzeko test psikoteknikoa egitean oinarrituko da.

Bigarren proba 0tik 20 puntura baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.


Deitutako pertsonak **2013ko azaroaren 8an, 8:30ean**, izan beharko dute **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Borroka Arteetako eraikuntzan** (-N 104 errep. 356 km. 01192 Arkauti- Araba).

Identifikazio agiria eraman beharko da probara, Epaimahai kalifikatzaileak edozein momentutan eskatu ahal izango baitie deitutako pertsoneri.

Deialdi honetan badaezpadan onartutako pertsonak ere hautaketa prozedura hau egitera deitzen dira, gaitasun fisikoaren proba gainditu duten eta hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda behin betiko egiten duen 2013ko irailaren 25eko Ebazpenaren hirugarren atalean xedatutakoarekin bat etorritz.

**HIRUGARRENA.-** Deialdiaren 6.3.B Oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, **oposizioko bigarren proba amaitu ostean, oposizioko hirugarren proba osatzen**

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL  
EUSKO JAURLARITZAKO DEPARTAMENTO AUTONOMIKO  
ORGANISMO AUTÓNOMO DEL GOBIERNO VASCO



**duen test psikologikoaren inguruko ariketa egingo da;** hau ere, derrigorrezko eta baztertze izaerakoa.

Oposizioko hirugarren proban nortasun ezaugarriak eta orekarik ez izatearen beste adierazle batzuk ebaluatuko dira eta izangaiaren jokaera eta izaera egokitasunak zehaztuko dira.

Proba horretan honako ariketak egingo dira: test psikologikoak eta banakako elkarrizketak. Ariketok honako puntuekin baloratuko dira:

- Test psikologikoa: 0tik 10 puntura.
- Banakako elkarrizketa: 0tik 10 puntura.

Hirugarren proba 0tik 20 puntura baloratuko da, eta gutxienez bi ariketekin batera 10 puntu atera beharko dira gainditzeko.

Test psikologikoaren inguruko ariketa banakako elkarrizketa baino lehenago zuzenduko da.

Banakako elkarrizketa egin aurretik, eta hala eskatuko da, elkarrizketa egiteko tresna gisa erabili ahal izateko, prozesuan parte hartzen dutenek **“curriculum vitae single” bat bete beharko dute.** Aipatutakoa ez da puntuatuko eta **deitutako pertsonak test psikologikoa amaitu ondoren egingo dute.**

**LAUGARRENA.-** Akordio hauen aurka, administrazio bidea agortzen ez dutena, interesdunek egintza eman duen organoari berari edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariari gora bidezko errekursoa jarri ahal izango die, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabete bateko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 114 artikuluan eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Aurkeztutako Errekurtsoen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da ebazpena emateko eskudun organoko erregistroan jasotzen denetik hasita. Ebazpena eman gabeko epe hau igarota, errekursoa gaitzetsizat joko da. Gora bidezko errekurtsorearen ebazpenaren aurka ez da izango beste administrazio errekurtsorik, 30/92 Legearen 118.1 artikuluan ezarritako kasuetako berraztertze ohiz kanpokoa izan ezik.

Arkautin , 2013ko urriaren 31n.

Izpta: **EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN IDAZKARIA**